

2018ko azaroa



Lea-Artibai, Busturialdea eta Ermuko 6 ekintzaile taldek astebete igaro dute Madrilgo *Google for Startups*

-en SPRINT_INN BIZKAIA egitasmoari esker. Lea-Artibaitik,

Ibai-Gane Jatetxea eta Pastor 360^o

ekintzaileak izan dira beraien negozioa ideia azeleratzeko aukeratutako enpresak.

Google for Startups, munduko hainbat hiriburutan kokatzen den Google enpresaren negozio azeleratzaile bat da. Bere helburua *startup* bat sortu nahi duten ekintzaileen arteko kolaborazioak sortzea da, eta horretarako, ideia eta erreminta berritzaileak jartzen dizkiete eskuragarri.

SPRINT_INN BIZKAIA egitasmoari esker Madrilera joan diren ekintzaileek, ***Design Sprint*** metodoa erabili dute (Google Ventures-ek sortua).

Metodologia berritzaile honen bidez, negozio bat eratzean sor daitezkeen zalantzei erantzun bat ematen zaie.

Aurrera begira, Madrilen ikasitako metodologia hori erabiltzen jarraituko dute ekintzaileeketa hauei babesa ematen dieten erakundeek. Urtarrilean bigarren bidaia bat egingo dute Madrilera *Google for Startups* programaren hurrengo faseari aurre egiteko.

Testigantzak

Ander Pastor eta Miren Pastor. PASTOR 360^o proiektua: "Guk oso ideia/proiektu txiki bat aurkeztu genuen, sektore zehatz batekoa, eta profesional anitzekin egon ostean, harrituta gaude proiektuak izan dezakeen oihartzunaz, hazteko gaitasunaz eta beste sektore batzuetara

ere eraman daitekeela irakatsi digute.”

Aitor Maguregi eta Joseba Jauregi. IBAI-GANE JATETXEA: “Trintxeratik irtetea beti da eskertzekoa, baina oraingoan apartekoa izan da. Google-eko jendearen ikuspuntua izatea guztiz aberasgarria izan da, nahiz eta proiektu batekin joan eta beste helburu batekin bueltatu, ziur etekina aterako diogula!”.

